

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10323 *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 27/2020 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa, Toki-entitateei aplikatzeko aparteko eta presako finantza-neurriena.*

Hutsak aurkitu ditugu Toki-entitateei aplikatzeko aparteko eta presako finantza-neurrien abuztuaren 4ko 27/2020 Errege Lege Dekretuan, zeina 2020ko abuztuaren 5ean argitaratu baitzen, *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 211. zenbakian, eta, honen bidez, behar diren zuzenketak egiten ditugu:

7. orrialdean, osorik dagoen laugarren paragrafoa ezabatzen da.

17. orrialdean, 1. artikulua bigarren paragrafoan, hau dio: «... errege lege-dekretu honen 6. artikulua 3. apartatua xedatzen dena...». Baina hau esan behar du: «... errege lege-dekretu honen 7. artikulua 3. apartatua xedatzen dena...».

19. orrialdean, 4.3 artikulua bederatzigarren lerroan, hau dio: «... birziklatzeko eta beste era batzuetara balioztatzeko...». Baina hau esan behar du: «... birziklatzeko eta hondakinak beste era batzuetara balioztatzeko...».